

**EREMUAK.**  
**“Programatzea, editatzea, ekoiztea”**  
**jardunaldien kontakizuna.**

Oier Iruretagoiena

**eremuak**

### 2015eko ekainaren 22a, astelehena. Arratsaldea.

Bigarren ez egin dira 2015ean eremuak antolatutako "Programatzea, editatzea, ekoiztea" jardunaldiak, arte-jarduerari lotutako hiru eremu horiei erantzungo dieten hitzaldiak bildu dituen. Hiru bloke horiekin hasi aurretik, hala ere, eremuak diruz lagundutako proiektuetako batzuen aurkezpenak egin ziren lehen egunean. The Walking Reading Group, Imanol Marrodán, Zigor Barayazarra, Superbia eta Ainize Sarasola izan ziren horiek, eta lehen hiruk jasoko ditut hemen.

Maria Salazar izan zen The Walking Reading Group proiektua aurkezteko ardura izan zuena, eta bere ibilbide pertsonalaren laburpen bat egin zigun ezer baino lehen. Jatorriz errioxarra, arte eder ikasketak egitera etorri zen Bilbora, eta consonnin 4 urte eman ondotik, Histeria kolektiboan dabil egun. Bilboko Gorte kalean du egoitza kolektibo honek, eta ekintza eta jarduera askoren artean, artistak bertan egonaldiak egitera gonbidatzen dituzte. Bertatik sortu zen TWRG Bilbora ekartzeko ideia ere. Londresko Lydia Ashman, Ania Bas eta Simone Mairren proiektua da berez, eta produktore paperean ibili da Maria, Bilbon egin ahal izateko baliabide eta konplize bila.

Izenak berak ondo definitzen duen bezala, testuak ibilian komentatzean datza egitasmoa. Testuak etxean irakurrita eraman ondoren, pasioan elkarbanatzen dituzte haren inguruko iritziak. Oinez ibiltzeak giro lagunartekoago eta lasaiago bat sortzen du, baina arau eta jarraibide oso zehatzak dituzte. Testuak aurrez erabakita daude, ibilbideak ere bai, eta itzuliak iraun bitartean binaka jartzen dute jendea, tarteka bikoteak aldatuz. Beste bi baldintza ere jarri zituzten; bakoitza nondik zetorren ahaztea eta norbere buruaren izenean baizik ez hitz egitea, eta edozein gauza esatea.

Aurrez Londresen egindako hiru saioetan "partehartzea" izan zen gaia, baina horrekin aspertu eta gero, "espazio publikoa" eta "jokuaren" arteko gurutzaketa aukeratu zuten Bilborako. Partehartzaileekiko zorrotzak zirela esan zuen Mariak, eguneko 30 bat orrialde irakurri behar baitziren, eta horrek dagoeneko filtro bat jartzen zuen. Bildutako jendeari dagokionez; mapeaketatik, gizarte berrikuntzatik, artetik, edo beste irakurketa taldeetatik zetorrena zen, besteak beste. Ibilbideak pentsatzeko lana Zaramari taldeari enkargatu zioten. Hiritargoaren inplikazioaren eta sormenaren bidezko eraldatze urbanistikoan lan egiten duen bikotea da hau, eta Bilboko bazter guztiak aski ederki ezagutzen dituzte. Hiru ibilaldi proposatu zituzten; Errekalde eta Uretamendi inguruan lehenengoa, Matikon bigarrena, eta San Frantziskon hirugarrena. Martxoko asteburu baten (ostiraletik igandera) egin zituzten hiruk, euria barra-barra ari zuen bitartean. Azarorako irakurketa taldearen bigarren zatia prestatzen ari dira, eta Zaramari taldeak urtero antolatzen dituen BAT jardunaldien barruan gertatuko da.

Imanol Marrodán jendaurreko egoera horretan ezeroso zegoela eta ezer prestatu ez zuela esanaz hasi zen, eta modu inprobisatuan hitz egingo zuela. Hala, lan batetik bestera salto egiten zuen deriba bat izan zen, bere azken lanen ikuspegi orokor bat eman ziguna. Naturak han erakutsitako guztia gurutzatzen zuen, eta bereziki, Urkiolako natur parkeko mendi eremuak. Berak hala gehiegi adierazi ez bazuen ere, mendi haiek urteetan behin eta berriz bisitatu izanaren arrastoa ikusten zen azkar pasatuko argazkietan. Zuhaitz bera elurtuta eta elurrik gabe, mendi bera eguraldi ezberdinarekin, zuhaitz bera tente eta haizeak botata, paisaia bat eguraldi jakin batekin erretratatu ahal izateko aukera sortu zedin itxarondako neguak... Bere lanean oinarritzkoena mendian ibiltzea zela zirudien. "Begiradarekin sortutako aire lerro bat", esaterako, Anboto eta Udalatxeko bi leizeren arteko erlazio bat seinalatzen duen lana

da. Bata bestearen parean daude berez bi leizeak, altuera beretxuan, 6 kilometroko distantziak banatuta. Bataren sarreran egonda, bestearen sarrera ikus liteke. Hala, airean lerro bat irudikatzen du Marrodanek, batere interbentzio fisikorik egin gabe, baina mendi eremu horren gure pertzepzioa alda dezakeen informazio bat emanaz. Richard Longen *A Line Made by Walking* (1967) lanaren berrirakurketa modura aurkezten zuen, eta Platonen leizeko mitoarekin ere lotu zuen, horrek egungo demokrazia ereduari buruzko hausnarketa bat proposatu dezakeelakoan. Segidan "Zuhaitz izoztuak" lana aurkeztu zuen, izoztu eta elurtutako zuhaitzak dokumentatzen dituen. Betiere, garrantzitsua zen beretzat koordenadak ematea, argazki bakoitza non aterea den zehatz seinatzea.

5 urtez ondu duen *Anboto* izeneko liburua amaitzen dabil orain, eta muina argazkiak badira ere, zinez gorroto du "fotolibro" hitza. Modan dagoen hitza da, eta ihes egin nahi hortik. Erakusketak egiteko ohiko modua ere ez du maite, eta interneten eta batez ere liburu digitaletan erakargarriagoa zaion eremu bat topatu du. Zabalkundea eta irisgarritasuna askoz handiagoak direla, eta aukerak ere asko zabaltzen direla defendatu zuen, besteak beste loturak erabiliaz. Bere webgune berrian lanean dabil orain horregatik, eta hainbat liburu digitalen elkargurutzaketa bat izango dela azaldu zigun.

Zigorrek ere ezerosotasun bat adierazi zuen; lanaz hitz egiteko zailtasuna, eta ezer azaldu baino nahiago izan zuen bere prozesuaren barruko esperimendu bat egin. Bideo bat proiektatu, eta testu bat zekarren liburuxka bat banatu zuen, irakurri ahala ikusi edo ikusi ahala irakurtzeko. Tartean zatiak galduko genituen hala, ezingo baitzen ez batean ez bestean arreta osoa jarri.

### **2015eko ekainaren 23a, asteartea. Goiza.**

Goiz iritsi nintzen Bilboartera, eta prestaketa lanean topatu nituen oraindik hizlari eta antolatzaileak. Ohikoak eta aspaldi ikusi gabeak agurtu, eta grabagailua eroso jartzeko moduko eserlekua gorde nuen niretzat. "Programatzea" zen astearte goizeko goiburua, eta momentu honetan martxan dauden edo egon berri diren hiru proiektu izan ziren gonbidatuak; hiri ezberdinetan kokatuak egonagatik antzekotasun aski dituztenak. Gobernu-erakundeetatik kanpokoak dira denak, alokatutako espazio pribatuetan kokatuak (nahiz kasu batzuetan dirulaguntza publikoak jaso), eta artistek kudeatuak: Bartzelonako Halfhouse, Bilboko *GIO Bat* eta Oportoko Uma Certa Falta de Coerência.

Halfhousekoek zabaldu zuten eguna. Alberto Peral eta Sinéad Spelmanek 2009an hasitako egitasmoa da, eta euren etxea jartzen dute artisten esku. Erakustokia eta bizilekua horma batek garbi erdibiturik hasi zuten ibilbidea, izenak iradokitzen duen moduan, baina banaketa hori berehala bihurtu zen gero eta lausoagoa, eta euren logela izan da interbentziorik jasan ez duen espazio bakarra. Poble nou auzo industrialeko pisu txiki batean hasi ziren, baina Vallvidrierako lorategidun etxe askozaz handiagora mugitu ziren 2012an. Hiria eta mendiaren arteko mugan daude orain, baina aldi berean zentrutik hamar minutura, eta aukerak are gehiago zabaldu ditu horrek. Etxeak, ohiko erakuslekuak ez dituen nolakotasunak ditu, eta erakusketa bat ikusi nahi duenak aurrez adostu beharko du Alberto eta Sinéadekin bisita noiz egin. Etxean harrera egingo diote hauek, eta momentuko erakusketaren ingurukoez ez ezik, aurrekoek etxean utzitako arrastoak seinalatuko dizkiote. Etxeak, kubo zuriak ez bezala, ez baititu han gertatutakoak pintura zuriz ezabatzen, eta pasatako artista guztiek uzten dute arrastoren bat.

Zazpi urteko ibilbidean egindako erakusketa eta ekintzen errebasoari eman zioten denbora gehien, eta modu argian egin zen deigarri 2013an egintza bat: Jende talde handi bat mendira igo zen gauez. Enbor bat hartu, Halfhousera eraman, eta tximinian erretzen zen bitartean zaindu zuten bost egunez, enbor osoa guztiz erre zen arte. Egun horietan handia izan zen jendearen joan-etorria, eta askok bertan egin zuten lo, bertan jan, bertan eguna pasa. Ez zuen inongo artistak sinatu, edonork har lezakeen Black Tulip izengoitiak baizik, eta beharbada horregatik, artista bati baino, Halfhousi berari oso lotuta geratu da.

Erresidentziak ere egin dituzte, eta Joana Escoval artista portugaldarrak egindakoari buruz hitz egin ziguten. Hirian barneratzeko eta jendearekin harremanetarako moduak edo aitzakiak bilatu zituen; esaterako, Halfhousen zegoen aulki zahar bat hartu eta berriztatzaile batengana eramanaz. Bien artean aztertu zuten nolakoa izan zitekeen aulki hori bere jatorrizko egoeran. Bestalde, bordatzen ikasi zuen Bartzelonako emakume batekin, eta hirian emandako pasioetako batean jasotako loreak bordatu zituen. Egonaldiaren amaieran erakusketa egin zuenean, bizitako esperientzien arrastoak erakutsi zituen: Berriztatutako aulkia, bordatutako oihala, etab.

Bilboko *GIO Bat*-ekoek eman zioten segida goizari. Neurri batean eremuak diruz lagundutako proiektua da hau ere, nahiz lehen eguneko talde horretan egon beharrean, "programatzea" taldearen barruan sartu. Manu Urangak proiektu honen jatorria azaldu zuen lehenbizi, *GIO Bat* bere lan baten izenburua baitzen hasiera batean ("Gorputzaren Irudi Oso Bat" tituluaren laburdura), eta denborak garapen eta izaera ezberdinak eman dizkio, Bilboko artista batzuen interbentzioak jaso dituen egitasmo bilakatzeraino.

2013an Bilboko espazio okupatu batean boluntario talde baten laguntzarekin egindako ekintza bat izan zen proiektuaren hasiera. Ekintza hori nolakoa zen argituko zigun bideo bat erakutsi nahi izan zuen, baina arazo teknikoak zirela medio, ezinezkoa izan zen. Hitzez azaltzea beti zaila bada ere, hona azalpen labur bat: Hormara atxikitako barra mugikor batzuk daude, bakoitza bideo-kamera batekin. Pertsona batzuek barrak mugitzen dituzte nahi bezala, ahalbidetzen diren mugimenduen barruan etengabe bariazioak eginaz. Kamera guztien grabazioak batutakoan, espazioaren eta han dauden pertsonen "irudi oso bat" eman dezakete. Bilbon egindako ekintza hori bera, urtebete beranduago, Itziaroko Txitxarro dantzalekuaren 38. urtemugako festan burutu zen. Bi ekintzetan bideo material asko sortu zen, eta horren edizio edo antolaketa espazial bat egin nahi zuen Manuk. Horretan aritu zen egun oso batez Bilboko Bulegoa z/b espazioan, publikoari zabalik. Proiektua guztiz ixteko, material guzti hori berriz antolatu eta erakusteko ariketa egin nahi zuen, baina denbora eta lasaitasun gehiagoz. Bilboko maiatzaren bira kaleko lokal bat alokatu zuen horretarako, lau hilabetez (2014ko abendutik 2015eko martxora), eta aukera aprobetxatuaz, inguruko artista gehiago bertan interbentzioak egitera gonbidatu zituen. Hala, beste zerbait bilakatu zen "Gio Bat".

Horren kudeaketarako, Pablo Marte izan zuen bidelagun, eta beste 13 izan ziren parte hartu zuten artistak: Taxio Ardanaz, Leo Burge, Alba Burgos, June Crespo, Marion Cruza, Raúl Domínguez, Daniel Llaría, Daniel Mera, Mikel Otxoteko, Rosa Parma, Leire San Martín, Natalia Vegas, eta testu hau idazten nabilen neroni. Pablaren hitzetan, "bonba mehatxua" izan zen hura denentzat, parte hartzaileen lepo betetako agendatan trabatu zena. Urgentzia eta berehalakotasunez lan egitera eraman gintuen, eta estresak material interesgarriak sortu zituela adierazi zuen. Aurkezpenean ez zuten hala ere espazioan gertatutakotik batere dokumentaziorik erakutsi, ezta gertaera konkreturik aipatu ere, eta proiektuaren jatorriaz eta asmoez hitz egin zuten.

Oportoko kale estu bateko bajuan dago Uma Certa Falta de Coerência, eta André Sousa eta Mauro Cerqueira artistek kudeatzen dute. Espazio zikina, zaharkitua eta lizundua da, 90 graduko angelurik batere gabea; eta "hiriko leize" bezala definitu zuten. Maurok topatu zuen espazioa, 2008an etxe bila zebilenean, eta bizitzeko modukoa ez zela argi zegoen arren, erakusketak egiteko espazio egokia izan zitekeela pentsatu zuen. Espazioaren izena Jimmie Durham artistaren liburu batetik hartua dago, eta artistek elkar lagundu behar dutela dio bertan.

Aurkezpenean esan zituzten guztiak erdigune honen inguruan dabilta: Modu organikoan lan egitea, aldikoan aldikoari begiratzea eta planik ez egitea, eta norbere energia ondo kudeatzea. Dirulaguntzarik ez izateak loturarik eza dakarkie, inongo gestio edo burokraziatan denborarik galdu beharrik gabe. Euren momentuko egoeraren arabera kudeatzen dute espazioa ere, deriba batean, eta Oportotik kanpo daudenean adibidez, itxita egoten da. Berehalakotasun handiz funtzionatzen dute askotan, eta prekarietatea ere ez da arazo izan: Oportoko aireportuko low cost hegaldiak hastearekin batera ireki zuten espazioa, oso eskura dauden interneteko blogak darabiltzate zabalkunderako, artistek produkzio merkeak egiten dituzte euren espaziorako, eta Oporton dauden bitartean Mauro eta Andréren etxeetan hartzen dute ostatu. Intentsitate handiko erritmoa dela azpimarratu zuten, egun osoko elkarbizitza baita artista gonbidatuekin izaten dutena. Euren webguneari emandako bistadizo batean, urteko 8 edo 10 erakusketa edo ekintzako batzbestekoa dutela ikus liteke.

Espazioa bera fisikoki eraldatzen joan da zazpi urte hauetan, baina ez kudeatzaileek hala erabakita. Artista gonbidatuek beren gogo eta beharren arabera eraldatu eta arrastoa utzi dezaten utzi dute: Pareta bat bota atzean zer dagoen ikusteko, hau kendu eta bestea jarri... Eramandako artistei dagokionez, "superstarrak" eta erabat ezezagunak izan direla esan zuen Andrék, eta artistak ez direnak ere bai kasu batzuetan. Ezkontza soinekoen erakusketa bat egitea eskaini die auzoko batek, eta Alexander Rodrigues medikuak bere harri bildumaren mostra egin zuen. Mendian edo hondartzan topatutako forma berezidun harriak ziren, berak labar arte primitibo deitzen zituenak.

Rua dos Caldereiros kalean daude, eta gune arriskutsua izan da urte batzuez, prostituzioa eta droga trafikoa mugitu dituen. Harreman handia izan dute kale horretako jendearekin, eta artista gonbidatuek egindako lanetan eragin handia izan du kontestu horrek. Azken urteetan aldaketa handi bat jasan du ordea. Gourmet pruduktuak eta modako kamisetak saltzen dituzten dendak agertu dira, eta turistak asko ugaritzen ari dira orain. Kanpoan gertatutako aldaketa horri euren espaziotik nola erantzun eta egoera berrira nola moldatu ez dakitela zioten. Hala ere, galderen txandan etorkizunerako planei buruz galdetutakoan, hilabete batera baino urrunago pentsatzen ez dutela, eta edozein momentutan amaitu daitekeela erantzun zuen Maurok. Egitekoa koherentzia falta pixkatekin egingo dutela ere bai.

Deigarria zen goizean ikusitako hiru espazioak bikoteek kudeatuak izatea, eta ez da beharbada kasualitatea izango. Bitan agertu zen antolakuntza eta kudeaketa lan hori buru gehiagoren artean egitearen ideia, eta Pablo Martek aipatu zuen lehenbizi: "Gaur egungo haizeak dena asanblearioa izan dadila dio. Horizontala, eta ez bertikala". Euren proiektuan, artista guztien artean erabaki ziren gauza asko, baina 4 hilabeteko sartu-irten laburra izan zen *GIO Bat*. Oportoko Andrék berriz heldu zion gai horri, eta zapuztu antzean esan zuen, euren espazioa modu kolektiboan kudeatu nahi izan zutela hasiera batean, Oportoko artista komunitatearekin, baina etsigarria izan zela eta biek

bakarrik jarraitzea erabaki zutela. Bakoitzak jartzen zuen energiaren ezberdintasunean edo deskonpentsazioan ikusten zuen ezintasun haren iturria.

Bestalde, esan dugu lehen artistak direla espazio guzti hauen kudeatzaileak, eta komisariotzarekiko distantzia bat nabaritu zen denengan. Halfhousen kasuan, hiru erakusketa kolektiborekin hasi zuten ibilbidea, baina berehala jo zuten bakarkako erakusketetara. Eta taldekako erakusketa horietako batean, artisten aukeraketa beraiek ez egiteko modua bilatu zuten, artista bakoitzak beste artista bat gonbidatu zuelarik. Honen zergatia komisariotzak sortzen dien deserosotasunean kokatu zuten, eta azkenean, euren artista izaeratik, berezkoena beste artistak bakarka gonbidatzea zela deliberatu zuten. Oportoko Maurok, euren espazioaren logika euren lagunak gonbidatzea dela esan zuen: "Dirurik ez badago, ez diogu ezagutzen ez dugun norbaiti muxutruk etortzeko esango". Alderdi afektiboak eta lehendikako gertutasunak garrantzi handia hartzen dute hala. *GIO Bat*-en kasuan, Pablok behin eta berriz aipatu zuen berak pertsonalki proiektu honetan hartu nahi izan duen izaera ez-definitia, tartekoa. Egin ziren ekintzetarako testu bana idatzi zuen, baina ez zuen zeregin hori komisarioaren edo kritikariaren begiradatik egin nahi izan. Mozorroa hartu eta gero kentzeaz hitz egin zuen, eta bere eginbehar konkretuei ez ezik, *GIO Bat* proiektu osoari ere izaera ezegonkor hori eman nahi izan zitzaioela esan zuen. Kanpotik izan zezakeen erakusketa areto itxura, hasteko aitzakia besterik ez zen mozorroa izan zitekeen, gero hortik "beste zerbait" bilatzeko.

#### **2015eko ekainaren 23a, asteazkena. Goiza.**

"Ekoiztea" zen asteazkenerako gaia, eta bi hitzaldi izan ziren goizeko saioan, Leire Vergara komisario eta kritikari Bilbotarrarena, eta Heidi Vogels Amsterdamgo artistarena. Leku ezberdinetatik heldu zioten ekoizpenaren ideiare.

"Displayari" buruz jardun zuen Leire Vergarak. Artelanak espazio itxi edo kubo zuri batean aurkezterako orduan; espazioarekin, beste lanekin edo argitalpenekin ezarri izan diren erlazio mota ezberdinen adibide sorta bat erakutsi zuen. Brian O'Dohertyren kubo zuriaren eta haren ideologiaren inguruko saiakerarako sartu-irtenak egin zituen hitzaldiko hainbat momentutan, eta hark kubo zuriaren hasiera kokatutako puntuan hasi zuen hitzaldia, XIX. mendeko saloietan. Lehen irudian, margolanez lepo betetako horma bat erakutsi zigun, eta haien antolakuntza hierarkikoa adierazi zigun: Ondoen baloratuak erdigunera, gutxiago baloratuak alboetara. Eta balizko lehen keinu komisarial bezala seinatu zuen Matissek 1904an independenteen saloiko instalazioa egin izana. Hortik aurrera, urteetan aurrera joan ginen pixkanaka, adibide batek atzetik beste bat ekarri ahala. Haien artean zen Malevichen *Zuri gaineko karratu beltza*, 1915eko Petrogradoko *0.10* erakusketan bi pareten arteko izkinan, diagonalean jarrita. "Displayaren" historiako mugarriztat hartzen dela esan zigun. Irudi ezaguna da duela mende bateko hori; margolana oso altu, ia sapaia mugan jarrita erakusten duena (behealdeko aulkiak ematen digu benetako neurriaren zentzua). Beste lan asko ditu inguruan, baina izkinan eta hain gora egoteak aretoko nagusi egiten du. Testu hau idazterako momentuan, Googlen bilaketa azkar bat egin dut, eta Petrogradokoa ez beste irudi guztietan horma bakar batetik zintzilik eta begien parean dago, pertzepzioa izugarri aldatzen delarik.

Bidean ikusitako beste adibide bat, El Lissitzkyk Hannoverreko Landesmuseumarako diseinatutako "kabinete abstraktua" izan zen. Artelan abstraktuak erakusteko aretoa zen, museo horretako gainontzeko areto barrokoetatik erabat ezberdindu nahi izan zuena. Hormak lerro gris ezberdinetan margotuak egoteak efektu

kinetikoa sortzen zuen, kokapenaren arabera hormak ilunago edo argiago ikusiaz. Artelanak kokatzeko panel batzuk mugikorrek ziren, bestalde. Margolanei erabat jazartzen zitzaien "displaya" iruditu zitzaidan. Edozein lan jarrita ere (nire irudipena da hau, ez Leirerena), El Lissitzkyren gelaren osagarri edo dekorazio soila izango zen beti.

Kontrako joeran, espresionismo abstraktuak eta minimalismoak aretoak ahalik eta neutroen egiten saiatzea ekarri zuten, arreta artelanetik ez deskuidatzeko. Leihoak itxi, paretak eta zorua erabat zuzendu, dena zuriz margotu, eta sapaik datozen argi zuzenak ezarri ziren. Espazio neutro horrek, bertan gertatuko gauza guztiak ezabatzen ditu aldiro. Kubo zuriarekiko konfrontazio bakoitza ahaztu egiten da pintura zuria hormetan berriz ematen den bakoitzean. Hemen O'Dohertyren saiakerara jo zuen berriz, eta kubo zuri neutral hori artearen garapenerako beharrezkoa eta berebizikoa izan dela esan zuen. Kubo zuri neutralik gabe, artea zaharkituta geratu izango zatekeen, eta eguneratzeko aukera galduko zukeen. Artelana gauza autonomo bezala ulertzea eta horren ondorengo kritika ez ziratekeen gertatuko.

Ibilbide historikoaren ondoren bere komisario praktikara iritsi zenean, "komisariotza akituaren" defentsa egin zuen. Hori azaltzeko, Deleuzeren zita bat hartu zuen oinarri, zeinak nekatuaren eta akituaren arteko ezberdintasuna zehazten duen: Nekatuta dagoenak atsedendaldi bat hartzen du, berriz ere lehengo baldintzetan lanean jarraitzeko. Akitua, ordea, bere egoeraren inguruko hausnarketa egin eta berau aldatzen saiatzen da. Aldiro bere burua zalantzan jarri eta kale nagusitik joaten ez den komisariotza litzateke "akitua". Helio Oiticicaren "planotik ateratzea" ideia ere zentzu berean erabili zuen.

Bere ibilbidetik ateratako bi adibide konkretu ere erakutsi zituen, Alejandra Rieraren MUSACeko *Vues partielles* [vistas parciales] eta Iñaki Imazen rekalde aretoko *Lo mío* erakusketak. Rierak, bere lana erakusteko egokitu zitzaion aretoa erabat zurruna eta itxia iruditurik, kristalezko horma (opaku, ez garden) batean zulo bat egitea erabaki zuen, kanpoko haize hotzari sartzen utziz. Erakusketa amaitutakoan atzera zuloa ixtea zen asmoa, baina hurrengo erakusketako artistek bere horretan utzi nahi izan zuten.

Iñaki Imazen lanen argazkiak erakutsiaz batera, Rekalde aretoan bera zegoen bitartean jarraitutako politika azaldu zuen. Artistei emandako ordainsariak txikiak zirela onartu zuen, eta ez zela horrekin ondo sentitzen. Baina konpentsazio modura, lanen ekoizpenaren kargu egiten zen aretoa, eta zerbait salduz gero artistarentzat zen kopuru osoa. Aretok ez zuen produkzioan jarritako dirua berreskuratzerik eskatzen, beste leku batzuetan egiten den moduan.

Heidi Vogelsen txanda iritsi zen gero, eta bere hitzaldian behin eta berriro agertu zen ideia izan zen *expending time*. Alegia, jendearekin egotea. Denporapasan egon, jatordu bat egin, ibilaldi bat, berriketan egon, jendea ezagutu... Argazki eta ikusentzunezkoetan jarduten du, eta jendearekin izandako elkarbizitzatik sortzen dira lanak. Erakutsitako lehen lanetako bat *One in between two and three* izan zen, zeinean urte eta erdi pasa zuen bi hilabetero Bartzelonara bidaiatuz, bertan bizi ziren Kenya, Samantha eta Wallimi lagunekin egon eta haien bizimodua erretratatzeko. Wallimiren kasuari buruz hitz egin zigun gehien. Jatorriz Libanokoa izaki, Bartzelonan bizi da egun familia osoarekin, eta hiri horretarako egokitzapena nola egiten zuten jarraitu nahi izan zuen. Hala ere, egunerokotasunaren eta prestatutako egoeraren edo posatzearen arteko tarteko egoera bat nabari da, eta Heidik berak ere "modelu" hitza erabili zuen hiru lagun hauei buruz hitz egiterakoan.

Joera hori ulertzeko argigarria izan liteke aurkezpenaren hasieran aipatu zuen Purple aldizkaria. 90. hamarkadan boladan zegoen moda argazkilaritzaren joera nagusiaren aurka egiten zuen argitalpen honek, egunerokotasuna ere jasotzen zuen bestelako argazkilaritza bati lekua emanez. Bless kolektiboa zen aldizkari honetan parte hartzen zutenetako bat, hauek ere hanka bat modan eta bestea handik kanpo zutelarik. Heidik arte ikasketak amaitu berritan, Blessekoek Parisen egin zuten jatordu-topaketa batean argazkiak egitera gonbidatu zuten, eta lan-modu horrek kate luzea ekarri dio gero.

Aurkezpenaren zati handiena azken 4 urteetan garatzen dabilen *Gardens of Fez* ikusentzunezkoari eskaini zion. Marokoko Fez hirian bereziki nabaria da eremu publikoaren eta lorategi pribatuen kontrajartzea, eta horregatik, "lorategia" kontzeptu gisa ere hartzen duela dio: Bestea, ohikotik kanpo dagoena. Foucaltek, "Of Other Spaces" saiakeran, "beste espaziotzat" hartzen ditu atsedean etxeak, ospitaleak, kartzelak... Hor kokatzen ditu Heidik lorategiak, eta José Luis Borgesen aipu baten bidez, ispiluak ere bai: "Ispilu guztien atzean, izaki arraro eta ezezagun asko bizi diren beste mundu bat badela uste zen". Hortik abiatuta, ezkutuko istorio bitxiak bila ibili da, gordea bistaratzeko ahaleginean. Amaitu gabeko lana izanda, ikerketan bildutako informazioa eta material solteak erakutsi zituen: Uretan bizi den izpiritu bati ostegunero erreka batean egiten zaizkion erritualak, ordaindu behar lukeen ura goizero doan hartzen duen gizona, behi baten hilketa, baratze bat zaintzen lan egiten duen gizon adindu baten eta haren katuaren bizimodua, 22 urteko Camilea dantzariarena, 26 urteko Mohammed itsuarena... Fezeko lorategien edertasunak gurutzaturik dena.